

Einsteinen matxismoa ez zen erlatiboa

AP



Mileva Maric (1875-1948) eta Albert Einstein (1879-1955). 1903an ezkondu ziren, eta 1914an banandu, dibortzioa bost urte geroago sinatu arren.

ZURICH, 1913. Max Planckek eta Walther Nernstek Kaiser Wilhelm Fisika Institutuko zuzendaritza onar zezan eta, beraz, Berlinera joan zedin eskatu zioten Albert Einstein. Einsteinek baiezkota eman zuen, baina Mileva Maric emazteak ez zuen berria gogo onez hartu. Ordurako haien arteko harremana hondoa jotzetik gertu zegoen, eta urtebete zen Einsteinek Elsa Lowenthal lehengusinarekin, haren bigarren emazte izango zenarekin, postazko harreman estua abiatu zuela.

Einsteinek eta Maricек 1896ko udazkenean ezagutu zuten elkar, biek Zuricheko eskola politeknikoan fisika eta matematika irakasteko diplomaren erdi mailako azterketetan emaitza bikainak lortu zituen ikastaroko emakume bakarrak: matematikan Einsteinek nota hobea jaso zuen (5,7 1 eta 6 bitarteko eskalan) Maricек baino (5,05). Baina fisikan emaitza bera lortu zuten (5,5).

Mileva Maric-en etorkizun handiko karrera akademikoa 1901ean eten zen, Einsteinek haurdun utzi zuenean. Lieserl alaba 1902an jaio zen, baina Einsteinen paperek ez dute argitzen haurrarekin zer gertatu zen: 1903ko uda amaieran hil zen ziurrenik, baina litekeena da bikote ezkongabeak haurra adopzioan ematea. Urte hartan ezkondu ziren Einstein eta Maric, eta beste bi seme izan zituzten.

Ezkondu eta hamar urtera, Berlinera aldatu zirenean, bikotea hautsita zegoen, baina, beste askotan bezala,

elkarrekin jarraitzea erabaki zuten haurren mesedetan. Horretarako, Einsteinek baldintza sorta harrigarria ezarri zion emazteari:

- “1. Hau guztia bermatuko duzu:
 - Nire arropa eta etxekoa egoera onean izango duzu.
 - Egunean hiru otordu zerbitzatu ditzakidazu nire logelan.
 - Nire logela eta bulegoa garbituko dituzu eta lan mahaia nik soilik erabiliko dudala argi izan behar duzu.
 - 2. Ez duzu nirekin inolako harreman pertsonalik izango, arrazoi sozialek ezinbesteko bihurtzen duten artean. Zehazki:
 - Ez zara etxean nire ondoan eseriko.
 - Ez dugu elkarrekin paseatu edo bidaiatuko.
 - 3. Ondorengoak aintzat hartuko dituzu:
 - Ez dugu harreman intimorik izango, eta ez didazu ezer aurpegiratuko.
 - Hitz egiteari utziko diozu nik eskatuz gero.
 - Nire gelatik edo bulegotik alde egingo duzu berehala, protestarik gabe, nik eskatuz gero.
 - Ez nauzu gutxietsiko semeen aurrean, ez hitzen ez ekintzen bidez.”
- Hasieran baldintzak onartu arren, 1914ko udan banandu ziren behin betiko, eta Maric Zurichera itzuli zen bi semeekin batera. 1919ko San Valentin egunean dibortziatu ziren bera eta Albert Einstein. ■



Arrastoak Van Goghek obra bat baino gehiago saldu zuen bizirik zela

VINCENT VAN GOGHEK (1853-1890) artelan bakarra saldu zuen hil baino lehen. Mito eza-guna eta arrakastarik eza justifikatzeko aitzakia oso erabilia da, baina ez da guztiz zuzena.

Egia da Van Goghek olio bakarra saldu zuela bizi zen artean. Hil baino hilabete batzuk lehenago, *Mahasti gorria Arlesetik gertu* (1888) koadroa saldu zion Anna Blog izeneko margolari belgikarrari, 400 liberaren truke.

Saldutako koadro bakarra hura izan arren, dakigunez, gutxienez beste hamalau lanen ordainetan dirua jaso zuen margolari holandarrak. Zehazki, artzain protestante batek bi marrazki erosi zizkion 1879an eta, hiru urte geroago, 1882an, lumaz egindako hamabi marrazki egin eta kobratu zituen, enkargu bat medio.

Hala ere, nahiz eta mitoa egia ez izan, badu zentzua, arte enkanteetan preziorik altuenak lortzen dituzten obren egilea miseria gorrian bizi eta hil baitzen. ■



PUSHKIN MUSEOA

Mahasti gorria Arlesetik gertu (1888) bizirik zela Van Goghek saldutako olio bakarra da, baina ez artelan bakarra, gutxienez beste hamalau obra saldu baitzituen hil baino lehen.